

TREBAKUNTZA 2017-03. TARTEKIAK: PARENTESIAK ETA MARRA LUZEAK

Udal idazki askotan, txarto erabiltzen ditugu parentesiak eta marra luzeak.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Orexa (Gipuzkoa) udalerrriak 123 biztanle baino ez ditu.*
2. * *Miren Gaztañaga (Irun, 1979) aktoreak “Euskalduna naiz, eta zu?” programan esandakoek hautsak harrotu dituzte.*
3. * *Azken urteetan zeliakia duten —glutena duen elikagaiek kalte egiten diete pertsona horiei— gaixoekin egin du lan.*
4. * *Gizaburuaga Aulesti eta Amoroto (Bizkaia) artean dagoen udalerrria da.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Tartekiek ahalik eta gutxien eten behar dute esaldia. Beraz, trabarik egiten ez duten tokian erabili behar dira bai parentesiak eta bai marra luzeak.

1. * **Orexa udalerrriak (Gipuzkoa)** 123 biztanle baino ez ditu.
2. * **Miren Gaztañaga aktoreak (Irun, 1979)** “Euskalduna naiz, eta zu?” programan esandakoek hautsak harrotu dituzte.
3. * **Azken urteetan zeliakia duten gaixoekin** egin du lan. Zeliakoei kalte egiten die glutenak.

Askotan, errazagoa da esaldia parentesirik gabe moldatzea, parentesiari leku erosoak aurkitzea baino.

4. * Gizaburuaga udalerrria **Bizkaian dago**, Aulesti eta Amоротoren artean.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99